



## **KIROL PROBEN BALDINTZA OROKORRAK**

### **AUTOMOBILISMOA**

1. Bete egin beharko da Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua), Zirkulazio Erregelamenduan (1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa) eta, bereziki, bere II. Eranskinean xedatutakoa.
2. Inoiz ezin izango da aldatu ez ibilbidea, ez proba egiteko data, ezta aurreikusitako ordutegiak ere, baldin eta Trafikoko Lurralde Bulegoak aldaketa hori aldeaz aurretik berariaz baimentzen ez badu.
3. Sailkatze eta abiadura probak egingo diren errepide-zatian behar bezala seinaleztatuko da, hala bide-zatiaren muturretan nola bere sarrera bakoitzean, ederki ikusten den "AUTOMOBILISMO PROBA" inskripzioa duen kartel baten bidez.
4. Prentsa eta irriaren bidez jakinarazi beharko da bide-zatiak itxiko direla, non abiaduraren proba osagarriak egingo diren. Proba hasi baino 48 ordu lehenago, ederki ikusi behar diren ohartarazpen-kartelak jarri beharko dira bide-zatiaren hasieran eta amaieran. Bertan jakinaraziko da zer ordutan itxiko diren, eta zeintzuk desbideratze egon daitezkeen.
5. Ibilbideak toki arriskutsuetan seinaleztatu beharko dira. Probako azken parte-hartzailea igaro ondoren kendu edo ezabatu beharko dira.
6. Ibilbideko bidegurutze guztiak eta alderdi arriskutsu guztietan, etxebizitzetatik izan daitezkeen sarrerak barne, antolakuntzako kideak egongo dira, erraz ikusteko moduko jantzi homologatuak izanda (1407/1992 E.D.), eta seinaleztatuko dituzte. Gainera, ikusleei gune arriskutsuetan sartzea galaraziko diete. Seinaleztapen-elementu egokiak izan beharko dituzte. Irteerako hasierako tartean eta helmugako tartean babes-hesiak jarriko dira.
7. Probaren kontrola eta ordena, parte-hartzaileei zein bidearen gainerako erabiltzaileei dagokienez, agintaritzaren agenteen edo antolakuntzako pertsona gaituen esku egongo dira, agenteen edo probako bide-segurtasunaren arduradunaren jarraibideak kontuan hartuz jardungo baitute.

8. Ertzaintzaren jarraibideak beteko dira probaren baimenaren eta segurtasunaren baldintzak betetzeari dagokionez. Baimen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzeak berekin ekarriko du Ertzaintzak proba geldiaraztea, hori guztia zehapen-espeditentea ireki daitekeelako aukera alde batera utzi gabe.
9. Probaren antolatzaileek proba igarotzen den errepideetan edo bide publikoetan sor daitezkeen kalteengatik erantzungo dute, baita hirugarrenei eragindakoengatik ere. Horrez gain, beren ardura ere izango da seinaleak kentzea, garbiketa egitea eta errepidearen eragin-eremuetan hondatuta egon daitezkeen guztia lehen zegoen bezala uztea.
10. Bidearen kontserbazio- eta ustiapen-zerbitzuei sartzen utzi beharko zaie.
11. Zirkulazio Erregelamenduko II. Eranskinaren 10. artikuluan adierazitako osasun-zerbitzuak egongo dira.
12. Ertzaintzak proba zaintzeko bere agenteak jarriko ditu.
13. Probaren garapenean, Antolatzaileak ezarri eta egiaztatuko beharko ditu kontrola-zerbitzuak eta segurtasun plana, baita seinaleztapen neurriak, zaintzarako giza baliabideak eta babes elementuak ere; horretaz gain, ikusleen sartzea kontrolatu beharko da, jende askoren mugimenduak edo kontrol gabekoak saihesten, eta zehazten zein lekutan jar daitezkeen ikusleak eta, kasu bada, bide-segurtasunean eragina izan dezaketen jarduerak, esate baterako salgaiak kalean saltzen dituztenak. Debekatuta egongo da seinaleztatuko lekuez bestelako lekutan kokatzea, eta antolatzailearen erantzukizuna izango da esandakoa betetzea. Edozelan ere, antolatzaileak aginte-agenteen parte-hartzea eskatu ahal izango du, ez badira betetzen bere errekerimenduak.